



Gomendio espezifikoak

OINETAKO DENDAK

- Sarreran lanpasa duten saltokiek tarteka disoluzio alkoholiko batekin busti dezakete hura, ahal dela bezero bakoitza sartu ondoren. Lanpasarik gabeko saltokietan, gomendagarria da alfonbra desinfektatzaileak erostea.
- Erabilera bakarreko eskularruak ematea bezeroei produktuak ikusgai dituzten saltokietan horiek manipulatzeko. Sarbidea dendako langileei mugatzeko aukera baloratzea.
- Nahitaezkoa da edozein produktu probatzeko galtzerdiak jartzea.
- Bezeroak maskara daraman ziurtatu behar da, ez badarama maskara kirurgikoa emango zaio.
- Eskularruak + galtzerdiak + bezeroaren maskara = probatu bai baina saldu ez den produktuak salgai jarraituko du.
- Elementu horietako edozeinek huts egingo balu, produktua berrogeialdian egongo da biltegian eta post-it batean zehaztuko da produktu horren berrogeialdiaren hasierako data eta ordua.
- Bezeroak produktua aldatu edo itzultzen badu produktua berrogeialdian egongo da.
- Aldeketen eta itzultzeen epeak mugatzea gomendatzen da legeak onartzen duen gutxienekora, denboraldia laburra izango baita.